



Udal agiria **ATAUN**

ETXARRI-ARANATZ ETA LAZKAOKO IGERILEKUAK **ERABILTZEKO DIRU-LAGUNTZAK**

Ataunen erroldatuta dauden herritarrei, mugakideak ditugun, Lazkaoko eta Etxarri-Aranazko kanpoko igerilekuak erabiltzeko diru-laguntzak ematea erabaki du Ataungo Udalak.

Udako denboraldiari dagozkion sarrerak eta bonoak ordainduko dira soilik eta % 20ko laguntza izango da.

Lazkaon, urte osoko bonoa duten herritarrei, udako denboraldiko proportzioa ordainduko zaie.

Laguntza horiek jasotzeko, sarreraren agiriak aurkeztu behar dira Udal bulegoan, irailaren 24tik irailaren 28ra, ordutegi honetan: goizeko 9etatik eguerdiko 14ak arte.

EZ DIRA ORDAINDUKO epe horretatik kanpo aurkezten diren sarrerak.

Eskaera egin aurretik Ataunen gutxienez urtebetez erroldatuta daudela eta Ataunen bizi direla egiaztatu behar dute diru-laguntza eskatzen dutenek.

Ezingo dute diru-laguntzarik jaso Ataungo Udalarekin ordaindu gabeko zorrak dituzten eskatzaileek.

Ataunen, 2018ko ekainaren 13an
ALKATEA,

